

IKASTETXEAREN ITXIERA - COVID-19

GURASOENTZAKO INFORMAZIOA

Egoera berezi honek sortutako online bidezko prestakuntza beharrari egokitzeko ikasleek izan ditzaketen zailtasunak ulertuz, hemen aurkezten dizkizuegunak egun berezi hauetan ikasleen eguna antolatzeko eta eskolak jarraitzeko gomendioak dira.

- Ikasle bakoitzak lan egiteko ordutegia zehaztu beharko luke, atsedena barne.
- Egunero ikasleek beren gelako ordutegiaren arabera egun horretan dituzten arloak landu behar dituzte.
- Egin beharreko lanak zeintzuk diren jakiteko, “lanaren antolaketaren taula” izeneko dokumentua sortu da. Dokumentu hau webgunean publikatuko da astelehenetik aurrera eta astelehenean ikasleei baita familiei ere emailaz bidaliko zaie. Taula hau astero berrituko da. Bertan agertuko dira lanak zeintzuk diren, materiala non dagoen, noizko entregatu beharko duten eta entregatzeko modua.
- Irakasleek ikasleek lan egiteko beharrezko material guztia eskuragai dutela bermatuko dute.
- Lan hauek ez dute inondik inora sei ordu baino gehiagoko jarduna eskatuko beraz, ikasleek ez lukete denbora hau baino gehiago eman beharko ikastetxeko lanak egiten dispositibo elektronikoen baten aurrean.
- Bidalitako lanen inguruan zalantzak izanez gero irakasleari emailaz galdetu ahal izango dizkio. Irakasleen erantzuna jasotzeko bi eguneko epea emango da.
- Horregatik garrantzitsua da egunero posta elektronikoa (gmail) kontsultatzea.
- 2. ebaluazioko berreskurapenen artezketak bertan behera geldituko dira momentuz. Hala ere irakasleek berreskurapen lana bidali ditzazkete. Honen berri posta elektronikoen bitartez edo gela birtualen bitartez (classroom) emango da.
- Kasuren batean ikasleek etxetik lan egiteko arazo edo zailtasun teknikoren bat (dispositibo eza, Interneteko konexiarkin arazoak...) izango balu ikastetxearekin kontaktuan jarri bestelako soluzioak bilatzeko.
- Lan hauen artean aurreikusita dago ere zenbait arlotan COVID-19-a gaiaren lanketa egitea.
- Eskola egunak direnez egun arruntetan bezala lo orduak errespetatzea gomendagarria da.

Bestelako oharrak:

- Zalantzak izanez gero tutoreei zuzendu ahal zarete, emailez.
- Tutore bilera presentzialak bertan behera geldituko dira. Beharrezkoa denean tutoreek zuekin ordutegi bat hitzartuko du bilera telefonoz egiteko.
- Aurrematrikulazio prozesua atzeratzen da.
- Ate irekien eguna, martxoaren 23rako programatuta, bertan behera gelditzen da.
- Gurasoen elkarteak antolatutako “Espazioak partekatuz. Dolua” tailerra, martxoaren 25erako programatuta, bertan behera gelditzen da.
- Martxoaren 23tik 27ra auzoan ospatu behar zen “Tratu onen inguruko osasun astea” bertan behera geratzen.